



OSOKO BILKURA
2018/06/28
6 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

**NIK, IÑAKI GALDOS LANDAK,
ELGOIBARKO UDALEKO BEHIN-
BEHINEKO IDAZKARI NAIZENEZ,
honako hau**

**D. IÑAKI GALDOS LANDA EL
SECRETARIO ACCTAL. DEL
ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE
ELGOIBAR.-----**

ZIURTATZEN DUT:**CERTIFICO:**

Bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita zortzian, Udalbatzarraren Osoko Bilkurak egin zuen bilerako aktaren zirriborroa honako hau dela:

Que el borrador del acta de la sesión celebrada por el Pleno Municipal el día veintiocho de junio dos mil dieciocho, es del tenor literal siguiente:

Elgoibarren eta bertako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita zortzian, arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Udalbatzarraren Osoko Bilkura lehenengo deialdian bildu da, ohiko bilera egiteko, Ane Beitia Arriola Alkate-lehendakariaren gidaritzapean, eta honako zinegotzi hauek bertan direla: Eusko Alderdi Jeltzalea Udal-taldearen buru den Ane Beitia Arriola andrea, Iosu Arraiz Aramburu jauna, Gorka Garaizabal Agirregomezkorta jauna, Bittori Zabala Fernandez andrea, Andrea Arriola Ferrer andrea, Blanca Larrañaga Iriondo Andrea, Ioseba Arrizabalaga Mendikute jauna eta Unai Arizmendiarieta Garcia jauna. Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean, Jose Luis Ibarzabal Eguibar jauna, Iñaki Larrañaga Etxabe jauna, Mireia Isasmendi Aizpiri Andrea, Miren Arrate Arrieta Jauregi andrea, Joseba Osoro Iturbe jauna eta Jon Peli Uriguen Ansola jauna. Euskal Sozialistak Udal-taldearen izenean, Nerea Alustiza Alonso andrea eta Fernando Suarez Varela jauna.

En la Villa de Elgoibar y su Casa Consistorial, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del veintiocho de junio de dos mil dieciocho, reúnen en primera convocatoria el Ayuntamiento Pleno para celebrar sesión ordinaria, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa-Presidenta Doña Ane Beitia Arriola y a la que asisten los Corporativos: Por el Grupo Municipal del Partido Nacionalista Vasco, del que forma parte la Sra. Alcaldesa: Don Iosu Arraiz Aramburu, Don Gorka Garaizabal Agirregomezkorta, Doña Bittori Zabala Fernandez, Doña Andrea Arriola Ferrer, Doña Blanca Larrañaga Iriondo, Don Ioseba Arrizabalaga Mendikute y Don Unai Arizmendiarieta García. Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Don Jose Luis Ibarzabal Eguibar, Don Iñaki Larrañaga Etxabe, Doña Mireia Isasmendi Aizpiri, Doña Miren Arrate Arrieta Jáuregui, Don Joseba Osoro Iturbe y Don Jon Peli Uriguen Ansola. Por el Grupo Municipal PSE-EE: Doña Nerea Alustiza Alonso y Don Fernando Suárez Varela.

Ez dira bertaratu: Eusko Alderdi Jeltzalea Udal-taldearen izenean: Maialen Gurrutxaga Uranga andrea.

No asiste: Por el Grupo Municipal del Partido Nacionalista Vasco: Doña Maialen Gurrutxaga Uranga.

Iñaki Galdos Landa Jaunak, behin-behineko idazkariak, bileraren fede eman du.

Da fe del acto el Secretario acctal. Don Iñaki Galdos Landa.



OSOKO BILKURA
2018/06/28
6 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Alkate Andreak iragarri du erretiratu egin dela aztergaien 8. puntuari ageri den mozioa, EAJk aurkeztutakoa eta presoak hurbiltzeari buruzkoa.

Por parte de la Sra. Alcaldesa se anuncia la retirada de la moción que figura en el punto octavo del orden del día, presentada por el PNV y relativa al acercamiento de presos.

LEHENENGOA.- 2018KO EKAINAREN 14AN EGINDAKO BILERARI DAGOKION AKTA ONARTZEA.-

PRIMERO.- APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 14 DE JUNIO DE 2018.-

Bozketan egin ondoren, aho batez onartu da bi mila eta hemezortziko ekainaren hamalauan egin zen bilerari dagokion akta.

Sometida a votación el acta correspondiente a la sesión celebrada el día catorce de junio de dos mil dieciocho, la misma es aprobada por unanimidad.

BIGARRENA.- ELGOIBARKO UDALEKO LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA PUNTUALAREN HASIERAKO ONARPENA.-

SEGUNDO.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DEL AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR.-

Aho batez onartu eta erabaki bihurtu da Udal Kudeaketarako Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Gestión Municipal:

“Lanpostu Zerrendaren onarpenari buruzko espedienteak dela eta, honako txosten hau egiten dut, ebazpen-proposamena egiteko, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Tokiko Erakundeen Antolakuntzari, Jarduerari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 175. artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta ondorengo aurrekariak oinarritzat hartuta.

“En relación con el expediente relativo a la aprobación de la Relación de Puestos de Trabajo, emito el siguiente informe-propuesta de resolución, de conformidad con lo establecido en el artículo 175 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, con base a los siguientes,

AURREKARIAK

ANTECEDENTES DE HECHO

Lehenengoa. 2017ko otsailaren 13an, txostena egin zen, Lanpostu Zerrenda onartzeko prozeduraren baitan ezarri beharreko prozedurari eta Legediari buruzkoa.

Primero. Que con fecha 5 de junio 2018 fue emitido Informe referente al procedimiento a seguir y a la Legislación aplicable en el procedimiento de aprobación de la Relación de Puestos de Trabajo.



OSOKO BILKURA
2018/06/28
6 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Bigarrena. Lanpostu Zerrendari buruzko proiektua barne antolakuntza kudeatzeko teknikariak egin zuen 2018ko ekainaren 5ean.

Hirugarrena. Funtzionarioen eta lan hitzarmendun langileen ordezkariak lanpostu Zerrendaren proiektuari buruzko txostena egin zuten, 2018ko ekainaren 7an, eta ez zuten inolako aldaketarik proposatu.

Laugarrena. Kontu-hartzaileak 2018ko ekainaren 8an egin zuen txostenean, egiaztatuta gelditu zen, Lanpostu Zerrenda aldatzeak ez duela eraginik izango indarrean dagoen udal Aurrekontuan.

Laugarrena. Lanpostu Zerrendaren ondorioz ez da aldatuko gaur egun indarrean dagoen langileen plantilla.

Horiek horrela, legez ezarritako tramitazioa egin ostean, Udalbatzarrari proposatzen zaio honako **AKORDIO** hauek har ditzala:

Lehenengoa.- Udal honetako Lanpostu Zerrendaren aldaketa lehendabizikoz onartzea, espedientean ageri den testuarekin.

Bigarrena.- Arestian aipatutako zerrenda, hamabost lanegunez, jendaurrean erakustea, dagokion iragarkia *Probintziako Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Egun horietan, interesdunek zerrenda aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Udalbatzarrari. Hala, arestian adierazitako epean, erreklamaziorik aurkeztzen ez baldin bada, zerrenda behin betiko onartutzat joko da; hala izan ezean, Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

Segundo. El proyecto de Relación de Puestos de Trabajo fue elaborado por el técnico gestor de organización interna con fecha 5 de junio de 2018

Tercero. Que el proyecto de Relación de puestos de Trabajo fue informado por los representantes de los funcionarios y del personal laboral con fecha 7 de junio de 2018 no habiendo ninguna modificación.

Cuarto. En el Informe de Intervención de fecha 8 junio de 2018 queda acreditado que la modificación de la RPT no afecta en el Presupuesto municipal vigente.

Quinto. La Relación de Puestos de Trabajo no supone alteración de la plantilla de personal actualmente vigente.

Realizada la tramitación legalmente establecida se propone al Pleno la adopción de los siguientes **ACUERDOS**:

Primero.- Aprobar inicialmente la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo de este Ayuntamiento, con el texto que figura como anexo.

Segundo.- Exponer al público la mencionada relación, durante el plazo de quince días hábiles a contar desde el siguiente al de publicación del correspondiente anuncio en el *Boletín Oficial de la Provincia*, durante los cuales los interesados podrán examinarla y presentar reclamaciones ante el Pleno. La relación se considerará definitivamente aprobada si durante el citado plazo no se hubieren presentado reclamaciones; en caso contrario, el Pleno dispondrá del plazo de un mes para resolverlas.



OSOKO BILKURA
2018/06/28
6 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

ERANSKINA / ANEXO

HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK

KOD.	POSTUA-REN IZENA	HARREMAN MOTA / POSTUA	HOR. SIST.	TAL-DEA	ESKALA	AZPI-ESK	MOTA	TITULAZIOA	HE	DERRIG. DATA	EZAG.	ORDA-INSARI MAILA	LAN POSTU MAILAK O OSAG 207/1990 D	BERARIAZ KO OSAG. *2008	DE-DIK	OH
309	Eginkizun anitzetako langilea	L/N	K	Ap				Eskola ziurtagiria	I		B-2	8	14	12266,71		H

ÁREA DE URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS

COD.	DENOM. PUESTO	TIPO REL/PTO	SIST. PROV.	GRUPO	ESCALA	SUB ESC	CLASE	TITULAC EXIGIDA	P.L.	FECHA PRECEP	CONOCIM	NIVEL RETRI	NIVEL C.D. D.207/1990	COMP. ESPEC. *2008	DE-DIC	OBS
309	Op. Serv. Múltiples	L/N	C	Ap				C.Escol.	I		B-2	8	14	12266,71		H

BARNE ANTOLAMENDUKO SAILA

KOD.	POSTUA-REN IZENA	HARREMAN MOTA / POSTUA	HOR. SIST.	TAL-DEA	ESKALA	AZPI-ESK	MOTA	TITULAZIOA	HE	DERRIG. DATA	EZAG.	ORDA-INSARI MAILA	LAN POSTU MAILAK O OSAG 207/1990 D	BERARIAZ KO OSAG. *2008	DE-DIK	OH
902	Gestore Adminis.	L/N	K	C1/C2				EG edo LH1 B edo LH2	3	24/05/07		12	20	13.511,37 15.017,64		H

ÁREA DE ORGANIZACIÓN INTERNA

COD.	DENOM. PUESTO	TIPO REL/PTO	SIST. PROV.	GRUPO	ESCALA	SUB ESC	CLASE	TITULAC EXIGIDA	P.L.	FECHA PRECEP	CONOCIM	NIVEL RETRI	NIVEL C.D. D.207/1990	COMP. ESPEC. *2008	DE-DIC	OBS
902	Gestor Administrativo	L/N	C	C1/C2				G.E. o FP1 B o FP2	3			12	20	13.511,37 15.017,64		P

HIRUGARRENA.- INFORMAZIOA TRUKATZEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN D-1, D-2, D-3, D-4 ETA D-5 ERANSKINAK ONARTZEA, GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKU DAUDEN ZERGA-DATUAK KONTSULTATU AHAL IZATEKO.-

Aho batez onartu eta erabaki bihurtu Udala Kudeaketarako Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

TERCERO.- APROBACIÓN DE LOS ANEXOS D-1, D-2, D-3, D-4 Y D-5 DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA EL INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN, PARA LA CONSULTA DE LOS DATOS TRIBUTARIOS OBRANTES EN LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPIZKOA.-

Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de acuerdo el siguiente



dictamen de la Comisión de Gestión Municipal:

“Osoko Bilkurak 2014ko maiatzaren 29an hartu zuen akordioaren bitartez, lankidetzaz hitzarmena sinatu zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren eta Elgoibarko Udalaren artean, informazioa elkarri lagatzeko.

“Resultando que, mediante acuerdo del Pleno de 29 de mayo de 2014, se aprobó el convenio de colaboración en materia de cesión recíproca de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Elgoibar.

Ildo horretatik kontuan izan behar da, bai Ogasun eta Finantza Sailarentzat, bai Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalarentzat beharrezkoa dela informazioa trukatzeko sistema egonkor bat ezartzea, aginduta dituzten funtzioak egin eta eskumenez baliatzeko.

Considerando que, tanto el Departamento de Hacienda y Finanzas como los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa requieren establecer un sistema estable de intercambio de información para el desarrollo de las funciones y el ejercicio de las competencias que tienen encomendadas..

Herritarrek Herri Administrazioen esku dauden datuak eta agiriak ez emateko eskubidea dutela kontuan izanik, Administrazioek bitarteko elektronikoak erabiliko dituzte informazio hori eskuratzeko. Hala eta guztiz ere, datu pertsonalak baldin badira, interesdunen baimena izan behar da, Datu Pertsonalak Babesteko Araudiak ezarritako baldintzen arabera.

Considerando el derecho de los ciudadanos a no aportar los datos y documentos que obren en poder de las Administraciones Públicas, las cuales utilizarán medios electrónicos para recabar dicha información siempre que, en el caso de datos de carácter personal, se cuente con el consentimiento de los interesados en los términos establecidos por la normativa Protección de Datos de Carácter Personal”.

Hala, arestian adierazitakoa kontuan izanik, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduaren arabera, informazioa lagatzeko hitzarmena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalen artean sinatu behar zena, onartu zen

Considerando que, de acuerdo con lo anterior, por Orden Foral 148/2014, de 24 de febrero de 2014, se aprobó el modelo de convenio de colaboración en materia de cesión de información, a suscribir entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa..

Horren haritik, kontuan izan behar da Foru Agindu horren bitartez arautzen direla zein kasutan emango dion informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko

Considerando que, en dicha Orden Foral se regulan los supuestos de suministros de información por parte del Departamento de Hacienda y Finanzas



OSOKO BILKURA
2018/06/28
6 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Ogasun eta Finantza Sailak Udalari, Foru Aldundiak berak onartu dituen eranskin-ereduen katalogoen arabera.

de la Diputación Foral de Gipuzkoa al Ayuntamiento, de acuerdo con el catálogo de anexos-tipo aprobados por la misma.

Hortaz, esan, Udalari berariaz eman behar zaizkion informazioak honako hauek direla:

Considerando que los suministros de información específicos para el Ayuntamiento son los siguientes

— D-1 Eranskina: Diru-laguntzak: Zerga betebeharrak betetzea.

— Anexo D-1: Subvenciones: Cumplimiento de obligaciones tributarias.

— D-2 Eranskina: Kontratazioak. Zerga betebeharrak betetzea.

— Anexo D-2: Contratación: Cumplimiento de obligaciones tributarias

— D-3 Eranskina: Gizarte Zerbitzuentzako zerga informazioa.

— Anexo D-3: Información fiscal para Servicios Sociales.

— D-4 Eranskina: Zerga-bilketa arlorako zerga informazioa.

— Anexo D-4: Información fiscal para el área de recaudación.

— D-5 Eranskina: Babes ofizialeko etxebizitzak kudeatzeko, sustatzeko eta esleitzeko zerga informazioa.

— Anexo D-5: Información fiscal para la gestión, promoción y adjudicación de viviendas de protección oficial.

Horiek horrela, arestian adierazitakoa kontuan izanik, eta D-1, D-2, D-3, D-4 eta D-5 Eranskinak aztertu ostean eta horiekin ados egonik, Udal Kudeaketa Batzordeak Osoko Bilkurari proposatzen dio honako **AKORDIO** hauek har ditzala:

Considerando lo expuesto, analizados los Anexos D-1, D-2, D-3, D-4 y D-5, y encontrándolos conforme, la Comisión de Gestión Municipal propone que por parte del Pleno de la Corporación se adopten los siguientes **ACUERDOS**:

Lehenengoa.- 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduaren bitartez onartu ziren D-1, D-2, D-3, D-4 eta D-5 eranskin-ereduak sinatzeko onarpena ematea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak Elgoibarko Udalari, ondoren zehaztuko diren arloetan, informazioa eman diezaion:

Primero: Aprobar la suscripción de los anexos-tipo D-1, D-2, D-3, D-4 y D-5, aprobados por la Orden Foral 148/2014, de 24 de febrero de 2014, relativos al suministro de información por parte del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa al Ayuntamiento de Elgoibar, referentes a las siguientes materias:

— D-1 Eranskina: Diru-laguntzak: Zerga betebeharrak betetzea.

— Anexo D-1: Subvenciones: Cumplimiento de obligaciones tributarias.



OSOKO BILKURA
2018/06/28
6 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

— D-2 Eranskina: Kontratazioak. Zerga betebeharrak betetzea.

— Anexo D-2: Contratación: Cumplimiento de obligaciones tributarias

— D-3 Eranskina: Gizarte Zerbitzuentzako zerga informazioa.

— Anexo D-3: Información fiscal para Servicios Sociales.

— D-4 Eranskina: Zerga-bilketa arlorako zerga informazioa.

— Anexo D-4: Información fiscal para el área de recaudación.

— D-5 Eranskina: Babes ofizialeko etxebizitzak kudeatzeko, sustatzeko eta esleitzeko zerga informazioa.

— Anexo D-5: Información fiscal para la gestión, promoción y adjudicación de viviendas de protección oficial.

Bigarrena.- Alkate andreari Eranskin horiek sinatzeko eskumena ematea, Elgoibarko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

Segundo.- Facultar a la Sra. Alcaldesa para suscribir dichos Anexos, en nombre y representación del Ayuntamiento de Elgoibar

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari akordio honen berri ematea. Horretarako, akordioari buruzko egiaztatzea helaraziko da, eta era berean, Alkate andreak sinatutako Eranskin bakoitzaren hiru ale bidaliko dira.

Tercero.- Comunicar al Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa este acuerdo, mediante la certificación expedida del mismo, y remitir además tres ejemplares de cada uno de los citados Anexos suscritos por la Sra. Alcaldesa.

Laugarrena.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarki Taulan eta Udalaren Gardentasun Atarian argitaratzea.”

Cuarto.- Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el Tablón de Anuncios y en el Portal de Transparencia del Ayuntamiento.”

Eta hemezortziak eta berrogeita bost minutu direnean, Udal Talde Sozialistaren bozeramaile den Nerea Alustiza andrea bilerara bertaratu da.

Siendo las dieciocho horas y cuarenta y cinco minutos, la Portavoz del Grupo Municipal Socialista D^a Nerea Alustiza, se incorpora a la sesión.

LAUGARRENA.- UDALEKO 2018 EKITALDIKO AURREKONTUA ALDATZEKO, 5/2018 ZENBAKIA DUEN ESPEDIENTEREN BERRI EMATEA.-

CUARTO.- DAR CUENTA DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 5/2018 DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2018 DEL AYUNTAMIENTO.-

Udalbatzarraren Osoko Bilkurak Alkateak eman duen ondorengo Ebazpenen berri izan du:

El Pleno de la Corporación se da por enterado de las siguiente Resolución Alcaldía:



OSOKO BILKURA
2018/06/28
6 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

**ALKATEAREN EBAZPENA, 0593
ZENBAKIDUNA**

RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA Nº 0593

KREDITU ALDAKETA ONARTZEA

**APROBACIÓN DE LA
MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS**

Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2018-KALD-000005-00 zenbakidun espedientearen onarpena.

Aprobación del expediente nº 2018-KALD-000005-00 de modificación de créditos mediante créditos adicionales.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Visto el expediente de modificación de créditos presupuestarios de este Ayuntamiento en la modalidad de créditos adicionales.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Visto, asimismo, el informe redactado por la interventora, donde se expone que el mencionado expediente es acorde con la legislación que le es de aplicación, concretamente, con lo establecido en el art. 14 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, relativa a los Presupuestos de las Entidades Locales.

Horiek horrela, arestian adierazitakoa kontuan izanik, eta Tokiko Araubidearen Oinarriak Arazten dituen 1985/7 Legearen 21.1 f.) artikulua xedatutakoari jarraiki, legez ematen zaizkidan eskumenez baliatuta, honen bitartez, ondokoa

A la vista de lo que antecede, y en uso de las atribuciones que me son legalmente conferidas, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 21.1.f) de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, por medio de la presente

EBATZI DUT:

RESUELVO:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

Primero.- Proceder a la aprobación del expediente de modificación de créditos del presupuesto de este Ayuntamiento, en la modalidad de créditos adicionales, con el mismo detalle por partidas que figura en la propuesta, de acuerdo con el siguiente resumen por capítulos.



OSOKO BILKURA
2018/06/28
6 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

KREDITU GEHIGARRIAK		CRÉDITOS ADICIONALES
Kapitulua Capítulos	Izena Denominación	Gehikuntzak Incrementos
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GASTOS DE BIENES CORRIENTES Y SERVICIOS	50.183,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA / TOTAL CRÉDITOS ADICIONALES		50.183,00

FINANTZAKETA		FINANCIACION
Kapitulua Capítulos	Izena Denominación	Zenbatekoa Importe
8 (SARRERAK) 8 (INGRESOS)	FINANTZA AKTIBOAK ACTIVOS FINANCIEROS	50.183,00
GUZTIRA / TOTAL		50.183,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmoa eta bete beharreak denez, bidezkoa da onetsitako aldaketa Fondoen Kontuhartzaitza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea, gastuetan zein sarreretan.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran akordio honen berri ematea.”

**BOSGARRENA.- EZKONTZA ZIBILA
BAIMENTZEKO, ESKUORDETZEARI
BURUZ ALKATETZAK EGINIKO
EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Udalbatzarraren Osoko Bilkurak Alkateak eman dituen honako Ebazpenen berri izan du:

**“ALKATEAREN EBAZPENA, 0438
ZENBAKIDUNA**

Kode Zibilaren 51.artikuluak emandako ahalmenak erabiliz, Toki Jaurbidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 n) eta 3. artikuluari dagokionez eta Toki Korporazioen Antolakuntza, Iharduera

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo, sin la adopción de ulteriores trámites, procede que la modificación aprobada sea reflejada por los Servicios de Intervención con carácter inmediato en la contabilidad, tanto en el apartado de gastos, como en el de ingresos,

Tercero.- Dar cuenta de este acuerdo al Pleno de la Corporación, en la próxima sesión que celebre.”

**QUINTO.- DAR CUENTA DE
RESOLUCIONES DE ALCALDÍA
SOBRE DELEGACIÓN DE FACULTAD
PARA AUTORIZAR MATRIMONIO
CIVIL.-**

El Pleno de la Corporación se da por enterado de las siguientes Resoluciones de Alcaldía.

**“RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA
Nº 0438**

En uso de las atribuciones conferidas por el artículo 51 del Código Civil, en relación con el artículo 21.1 n) y 3 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local y con el artículo 44 del Reglamento de Organización,



OSOKO BILKURA
2018/06/28
6 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

eta Lege-Jaurpidearen 44 artikuluari dagokionez, honako hau agindu dut:

1.- Elgoibarko Udaleko Zinegotzia den ANDREA ARRIOLA FERRER jaunari, DON JOSE MARIA BALLESTEROS CID jauna eta MARIA MARCELA LOZANO PEREZ andrea ezkontzeko baimena ematea. Ezkontza 2018ko maiatzaren 19an izango da.

2.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatza Osoari hurrengo egingo duen bilkuran, Toki Korporazioen Antolakuntza, Iharduera eta Lege-Jaurpidearen 44.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.- Honako erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Toki Korporazioen Antolakuntza, Iharduera eta Lege-Jaurpidearen 44.2 artikuluan aurrikusitako ondorioetarako.

4.- Dekretu hau interesatuei eta Andrea Arriola Ferrer andreari jakinaraztea.”

**“ALKATEAREN EBAZPEN
0573 ZENBAKIDUNA**

Kode Zibilaren 51. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, Toki Jaurbidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 n) eta 3. artikuluari dagokionez eta Toki Korporazioen Antolakuntza, Iharduera eta Lege-Jaurpidearen 44 artikuluari dagokionez, honako hau agindu dut:

1.- Elgoibarko Udaleko Zinegotzia den JOSU ARRAIZ ARAMBURU jaunari, JON LARREATEGI ARANA jauna eta ANE GARCIANDIA GARAYALDE,

Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, vengo a disponer:

1.- Delegar en favor de DOÑA ANDREA ARRIOLA FERRER, Concejal del Ayuntamiento de Elgóibar, la facultad para autorizar el matrimonio de DON JOSE MARIA BALLESTEROS CID y DOÑA MARIA MARCELA LOZANO PEREZ, a celebrarse el día 19 de mayo de 2018.

2.- Dar cuenta al Pleno de la presente resolución en la próxima sesión que celebre, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales.

3.- La presente resolución se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa con los efectos previstos en el artículo 44.2 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales.

4.- Dar traslado del presente Decreto a los interesados, así como a D^a. Andrea Arriola Ferrer.”

**“RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA
Nº 0573**

En uso de las atribuciones conferidas por el artículo 51 del Código Civil, en relación con el artículo 21.1 n) y 3 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local y con el artículo 44 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, vengo a disponer:

1.- Delegar en favor de DON JOSU ARRAIZ ARAMBURU, Concejal del Ayuntamiento de Elgóibar, la facultad para autorizar el matrimonio de DON



OSOKO BILKURA
2018/06/28
6 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

andrea ezkontzeko baimena ematea. Ezkontza 2018ko ekainaren 16an izango da.

2.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatza Osoari hurrengo egingo duen bilkuran, Toki Korporazioen Antolakuntza, Iharduera eta Lege-Jaurpidearen 44.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.- Honako erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Toki Korporazioen Antolakuntza, Iharduera eta Lege-Jaurpidearen 44.2 artikuluan aurrikusitako ondorioetarako.

4.- Dekretu hau interesatuei eta Josu Arraiz Aramburu jaunari jakinaraztea.”

“ALKATEAREN EBAZPEN 0612 ZENBAKIDUNA

Kode Zibilaren 51.artikuluak emandako ahalmenak erabiliz, Toki Jaurbidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 n) eta 3. artikuluari dagokionez eta Toki Korporazioen Antolakuntza, Iharduera eta Lege-Jaurpidearen 44 artikuluari dagokionez, honako hau agindu dut:

1.- Elgoibarko Udaleko Zinegotzia den FERNANDO SUAREZ VARELA jaunari, PEDRO JOAQUIN CONTRERAS GONZALEZ jauna eta ROSA MARIA BURGOA SOMOZA andrea ezkontzeko baimena ematea. Ezkontza 2018ko uztailaren 27an izango da.

2.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatza Osoari hurrengo egingo duen bilkuran, Toki Korporazioen Antolakuntza, Iharduera eta Lege-

JON LARREATEGI ARANA y DOÑA ANE GARCIANDIA GARAYALDE, a celebrarse el día 16 de junio de 2018.

2.- Dar cuenta al Pleno de la presente resolución en la próxima sesión que celebre, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales.

3.- La presente resolución se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa con los efectos previstos en el artículo 44.2 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales.

4.- Dar traslado del presente Decreto a los interesados, así como a D. Josu Arraiz Aramburu.”

“RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA Nº 0612

En uso de las atribuciones conferidas por el artículo 51 del Código Civil, en relación con el artículo 21.1 n) y 3 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local y con el artículo 44 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, vengo a disponer:

1.- Delegar en favor de DON FERNANDO SUAREZ VARELA, Concejal del Ayuntamiento de Elgóibar, la facultad para autorizar el matrimonio de PEDRO JOAQUIN CONTRERAS GONZALEZ y DOÑA ROSA MARIA BURGOA SOMOZA, a celebrarse el día 27 de julio de 2018.

2.- Dar cuenta al Pleno de la presente resolución en la próxima sesión que celebre, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44.4 del



OSOKO BILKURA
2018/06/28
6 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Jaurpidearen 44.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales.

3.- Honako erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Toki Korporazioen Antolakuntza, Iharduera eta Lege-Jaurpidearen 44.2 artikuluan aurrikusitako ondorioetarako.

3.- La presente resolución se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa con los efectos previstos en el artículo 44.2 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales.

4.- Dekretu hau interesatuei eta Fernando Suarez Varela jaunari jakinaraztea.”

4.- Dar traslado del presente Decreto a los interesados, así como a D. Fernando Suarez Varela.”

SEIGARRENA.- ALTSASUKO GERTAKARIEI BURUZ, EH BILDU ELGOIBARREK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

SEXTO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EH BILDU ELGOIBAR EN RELACIÓN A LOS HECHOS DE ALSASUA.-

EH Bildu Elgoibar Udal Taldeko zinegotzia den Iñaki Larrañaga jaunak ondorengo mozioa irakurtzen du:

Por parte del Concejal del Grupo Municipal EH Bildu Elgoibar, Don Iñaki Larrañaga, se procede a dar lectura a la siguiente Moción:

“2018ko ekainaren 1ean Auzitegi Nazionalaren lehen sekzioak 17/2018 epaia eman du, 2016ko urriaren 15ean Altsasun izandako gertakarien inguruko prozesu judizialaren inguruan, eta honako zigorrak ezarri dizkie auzipetuei, ebazpen judizialak probatutzat jotzen dituen ekintzen zigor kalifikazioen haritik:

“Con fecha de 1 de junio de 2018 la Sección Primera de la Audiencia Nacional ha dictado la Sentencia Nº 17/2018 en el proceso judicial en el que se han investigado y enjuiciado los hechos ocurridos el 15 de octubre de 2016 en la localidad de Altsasu/Alsasua, dando lugar a la siguiente interposición de penas a las personas encausadas en virtud de la calificación penal de los hechos que la resolución judicial considera probados:

- Oihan Arnanz eta Iñaki Abadi: 13 urteko espetxe zigorra
- Jokin Unamuno Goikoetxea eta Adur Ramirez de Aldari: 12 urteko espetxe zigorra
- Jon Ander Cob, Julen Goikoetxea eta Aratz Urrizolari: 9 urteko espetxe zigorra
- Ainara Urkijori: 2 urteko espetxe zigorra

- Oihan Arnanz e Iñaki Abad: 13 años de prisión
- Jokin Unamuno Goikoetxea y Adur Ramirez de Alda: 12 años de prisión
- Jon Ander Cob, Julen Goikoetxea y Aratz Urrizola: 9 años de prisión
- Ainara Urkijo: 2 años de prisión



Horrenbestez, honako mozio hau aurkezten dugu eztabaidatzeko eta onartzeko:

1. Elgoibarko Udalak gaitzetsi egiten ditu zigorrak, neurritz kanpokoak direlako. Neurrigabekeria present izan da prozesu judizial osoan, gertakizunak delitu terroristatzat jotzean, eta Auzitegi Nazionalaren ikerketa, epaitze eta zigorrean. Arbuioa azaldu dugu orobat enkausatutako pertsonetatik hiruri prebentziozko espetxealdia aplikatu zaielako, uste baitugu ez dagoela horretarako lege-arrazoirik, eta gainontzekoak epai mugiezinik gabe espetxeratu dituztelako. Hori dela-eta, kondenatutako pertsonak espetxean ez sartzea eskatzen dugu, harik eta bide judizial guztiak agortu arte

2. Elgoibarko udalak gertakariak Nafarroako Probintzia Auzitegiak ikertu, epaitu eta, kasua bada, kondenatu behar zituela uste du, ezen ez Auzitegi Nazionalak; izan ere, auzitegi horrek bere gain hartu zuen eskumena, eta Auzitegi Gorenak berretsi egin zuen, gertakariak izaera terroristako ustezko delitu gisa kalifikatu zirelako, baina kalifikazio hori azkenik baztertu egin du auzigai dugun honako epai honek.

3. Presio politiko eta mediatikoak neurritz kanpoko zigorrak ezartzea eragin du. Presio horrek berekin ekarri du gertakariak ustezko delitu terroristatzar jotzea, eta mailaz kanpoko gehiegizko egoera batera iristea. Ondorioz, defentsaren eskubideak urratu diren epaiketa baten aurrean gaudela eta estatuaren aparatuek, guardia zibilaren paper protagonista nabarmenduz, botere abusu garbia gauzatu dutela nabarmendu nahi dugu.

De acuerdo a todo lo anterior, presentamos para su discusión y aprobación la siguiente moción:

1.- El Ayuntamiento de Elgoibar manifiesta su rechazo por el carácter desproporcionado de las penas impuestas. Una desproporción que ha estado presente en todo el proceso judicial tras la calificación de los hechos como delito terrorista y la investigación, enjuiciamiento y condena por parte de la Audiencia Nacional. Un rechazo que también se manifiesta ante la aplicación de la prisión preventiva sobre tres de las personas encausadas, por considerar que no se cumplen los motivos legales para ello y el encarcelamiento del resto si haber sentencia firme. Así solicitamos el no ingreso en prisión de las personas condenadas hasta agotar las vías judiciales existentes.

2.- El Ayuntamiento de Elgoibar entiende que los hechos en cuestión debían haber sido investigados, enjuiciados y en su caso condenados por parte de la Audiencia Provincial de Navarra y no por parte de la Audiencia Nacional, cuya competencia fue asumida por esta y afirmada por el Tribunal Supremo por la calificación de los hechos como presuntos delitos de naturaleza terrorista, calificación descartada finalmente por la Sentencia que ahora nos ocupa.

3.- La presión política y mediática ha provocado unas penas totalmente desproporcionadas en relación a los hechos. Esta presión ha originado que estos hechos hayan sido calificados como presunto delito de naturaleza terrorista y llegar a una situación exagerada y fuera de rango. En consecuencia, denunciarnos que la defensa se ha enfrentado a un juicio en el que se han vulnerado sus derechos y que los aparatos del estado con el papel



OSOKO BILKURA
2018/06/28
6 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

protagonista de la guardia civil han ejercido un claro abuso de poder.

4. Elgoibarko Udalak JUSTIZIA eskatzen du kasu honetarako, eta horrenbestez Altsasu Gurasoak taldeak antolatutako mobilizazioetan parte hartzera deitzen ditu herritar guztiak.”

4.- El Ayuntamiento de Elgoibar desde su voluntad de que en este caso se imparta JUSTICIA, hace un llamamiento al conjunto de vecinos y vecinas de nuestro municipio a participar en las diferentes movilizaciones convocadas por el colectivo Altsasu Gurasoak.”

PSE-EE Udal Taldeko Bozeramailea den Alustiza andreak dio gai hau duela hainbat hilabete pasatu zela, eta geroztik aldaketa bat egon dela.

La Sra. Alustiza portavoz del Grupo Municipal PSE-EE dice que este tema se trató hace varios meses, y que desde entonces ha habido un cambio.

Momentu horretan terrorismoaren barne zegoen kasua, eta gaur egun hortik kanpo gelditu da.

En aquel momento el caso se trató como terrorismo, y actualmente, ha quedado fuera de esa calificación.

Uste du zigorrak oso altuak direla, eta orain beste epaitegi batek aztertuko dituenaz, gaia nola gelditzen den ikusi arte bere botoa abstentzia izango dela.

Cree que las condenas son muy elevadas, y que como ahora las examinará otro tribunal, hasta ver cómo queda el tema se va abstener.

